

EMAGUNEren Aurkezpena


Bizkaia Aretoa
2016ko irailaren 30a





Zer da ehuGune?

- UPV/EHU eta gizartearen arteko **topagunea**.
- **Helburua**: gurean garrantzitsu eta estrategikotzat jotzen ditugun arazo sozial, kultural, ekonomiko eta politikoak aztertzea.





Gaiak

1. Bakea eta bizikidetzaz
2. Krisiak
3. Euskal Herria 2050



EMAGUNE

Bakea eta bizikidetzaren arlo barruan, 2014ko maiatzean, ehuGunek ondokoa planteatzen du:

- ikusmolde desberdinetako **emakumeen topalekua eta gogoeta gunea zabaltzea**
- emakumeok egin ditzakegun ekarpenen inguruan
- ETAk armak utzi ondoren euskal gizartean sortutako egoera berrian.



Nolakoa da EMAGUNE?

- **Anitza:** Arlo eta ibilbide ezberdinetako emakumeak bildu gara.
- **Barneratzailea eta dinamikoa:** Gaudenok jarritzeko eta oraindik ez daudenengana heltzeko apostua egina dugu.
- **Beharrezkoa:** Hutsunea dago eta edukiez bete nahi dugu.
- **Eraikitzailea:** Aniztasunetik eta daukagunetik abiatuz, gehituz.
- **Konfidentzialtasuna** (edukiez, ez taldeaz).
- Gure parte-hartzea **maila indibidualean**



Gure balioak

- Konfiantza
- Zintzotasuna
- Konfidentzialtasuna (edukiez, ez taldeaz)
- Errespetua (pertsonekiko eta norberaren denborarekiko)
- Gure parte-hartzea **maila indibidualean**
- Gure burua eta guztiona zaintzeak seguritatea ematen die norberari eta taldeari



Gure balioak

- Geuk erabakitzen dugu, ez beste inor.
- Guztiok urlertzeko **hizkuntza** bilatzen dugu
- **Hizkuntza propioa**, dauden klitxeak gaindituko dituen
- Lan-metodo berriak bilatzen ditugu
- Ez dago banakako lidergorik Taldeak du lidergoa
- Gune **irekia** da. Eraikitzen ari gara.



EMAGUNEren ibilbidea



Gure ibilbidea

Bakea eta feminismoa landu dituzten **bi emakumeren laguntzaz** hasi ginen:

- **Elena Grau**, Institut Catalá Internacional per la Pau (ICIP) eta Women's International League for Peace and Freedom (WILPF)
- **Carmen Magallón**, SIP (Seminario de Investigación para la Paz – Bakerako Ikerketa Mintegia) Fundazioa eta Women's International League for Peace and Freedom (WILPF)



Lehen Mintegia (2014ko maiatzak 30)

Emakumeen ekintza politikoko lau esperientzia, gatazka armatuko eta bakearen aurkako mehatxu gogorretako testuinguruetan:

- Bakearen aldeko Emakumeen Kongresua (La Haya ,1915)
- Misil nuklearren instalazioaren aurkako emakumeen kanpamendua, Greenham Common base militarren aurrean (1981-1994)
- Txipre: emakume turkiarrak eta greko-txipretarrak, irla zatitzen duen lerroaren zehar.
- Kolonbia: Emakumeen ibilbide bakezalearen mugimendua, Kolonbiako Emakumeen Memoria eta Egiaren Batzordea.



Gure ibilbidea (jar.)

Bigarren Mintegia: 2014ko ekainak 26

- EMAGUNE zer den zehazten dugu
- Ahotsak-en esperientzia partekatzen dugu

Hirugarren Mintegia: 2014ko urriak 10
Hiru gai nagusi eztabaidatzen ditugu:

- Bakea eta biolentzia: harremanak berreraiki, bakearen kultura sortzea
- Feminismoak
- Sormena/taldearen kanpoko proiektzioa



Gure ibilbidea (jar.)

Hasten gara geu bakarrik gure ibilbidea

Laugarren Mintegia: 2014ko azaroak 28

- Egindakoaren balantzea
- Gutariko bakoitzak, nola bizi izan duen “euskal gatazka”.

Bosgarren Mintegia: 2015eko urtarrilak 23

- Egindakoaren balantzea
- Beste “gatazka anitzak” izendatu eta ezaugarritu

Gatazken DODEKAEDROA

- Gatazka sozio-laborala
- Generoko gatazka/gatazka patriarkala
- Hizkuntza-gatazka
- Identitate-gatazka
- Kultura eta arrazen arteko gatazka
- Botere-gatazka
- Hiri eta landaren arteko gatazka
- Gatazka politiko-armatua
- Euskal gizartearen eta ETaren arteko gatazka
- Euskal gizartearen eta Estatuaren arteko gatazka
- Erligio-gatazka
- Denboren arteko gatazka

2015ean zehar,
gatazka horiei
buruz
eztabaidatzeko
lau mintegi



Sintesi Dokumentua

- Gure helburua, 2016 urtean Horretaz gain, aztertu ditugu:
- Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Plana
- Euskal Herriko mugimendu feministak bakearen inguruan bultzaturiko ekimen ezberdinak
- Ekainak 17: sintesi-dokumentuaren zirriborroa emakume gehiagorekin partekatzeko.

Gaur, bi urteko eztabaiden emaitza egiten dugu publiko.